



Donostia, 2025eko abenduaren 12an

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, DONOSTIAKO BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIARI BURUZKOA

Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 134. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Gizarte Zerbitzuetako eta Ekintza Komunitarioko zinegotzi ordezkari Idoeta andereari Martuteneko institutu zaharretik 111 pertsona kanporatzeari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den abenduaren 9an, Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean, Gizarte Zerbitzuetako eta Ekintza Komunitarioko zinegotzi ordezkari Idoeta andereari interpelazio bat aurkeztu genion, Martuteneko Agustindarren eraikinean bizi ziren pertsonak bertatik irtenaraztearen inguruan.

Zinegotzi ordezkariak jakinarazi zuen gizarte-zerbitzuek 84 pertsona aurkitu zituztela bertan, eta horietatik 50 hezkuntza- edo gizarteratze-programen bidez artatzen ari direla, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.

Halaber, jakinarazi zuen, La Sirena aterpetxea aktibatuta dagoen bitartean (2026ko martxora arte), pertsona horiek han gaua igarotzea aurreikusi dela, eta, ibilbide jakin bat dutenean, beste baliabide batera bideratu ahal izango direla.

Batzordean adierazi genuenez, badira erabiltzen ez diren beste eraikin batzuk, orain etxerik gabeko pertsonak erabiltzen dituztenak, esaterako Herrerako Zardoya eraikina. Leku horretarako aurreikusitako hirigintza-planek aurrera egiten duten heinean, eraikin hori ere hustu egingo da.

Horiez gain, kalean ozta-ozta bizi diren beste 400 pertsona baino gehiago ere kontuan hartu behar dira.

Beraz, litekeena da Martutenen edo hiriko beste leku batzuetan gertatutakoa berriro gertatzea eta, beraz, uste dugu udal-gobernua lanean hasi behar dela Zardoyako eraikin abandonatuetan edo hiriko beste leku batzuetan lo egiten duten pertsonak gizarteratzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, hirugarren sektoreko erakundeen eta beste kolektibo sozial batzuen laguntzarekin, hala, bizitegi-bazterketa larria jasaten duten pertsonen alternatiba duin bat bermatzeko.

Izan ere, Bizitegi-bazterketa larriaren aurkako II. Euskal Estrategiaren (2024-2028) aurkezpenean hau adierazten da: *“Bizitegi-bazterketa larria erronka kolektiboa da eta arazo konplexua erabateko gizarteratzearen eta gizarte-kohesioaren alde egiten duen eraldaketak dagoen euskal gizartean. Eta etxegabetasuna baztertzeko erarik muturrenetakoa da, kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko handiak eragiten baititu. Errealitate horri erantzuteko, beharrezkoa da lidergo politikoa, plangintza, berrikuntza eta lankidetzak, publiko-publikoa eta publiko-soziala, eta funtsezkoa da Euskadiko hirugarren gizarte-sektorearen ekarpena eta balio erantsia”.*

Horregatik, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzakoak hertsatuki eskatzen dio udal-gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin eta beste kolektibo sozial batzuekin batera, bizitoki-alternatiba bat planifikatu dezala

—~~Donostian bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonentzat, kalean ala bizitoki duin baten baldintza egokiak betetzen ez dituzten eraikin hutsetan ozta-ozta bizi den pertsonarik egon ez dadin, “2024-2028 aldirako Bizitegi-bazterketa Larriaren aurkako II. Euskal Estrategiarekin” bat etorriz.~~

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia